

# Ahotsak

Asier Arakistain Alberdi

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa  
2010



Zumaiko Udala

*enkar  
txanpu*



# Ahotsak

Asier Arakistain Alberdi

Julene Azpeitia 23. ipuin lehiaketa

2010

Zumaiako onenaren saria

Zumaiian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Asier Arakistain Alberdi (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Errezelak uzten gaituen arte gizonezko bat ikus dezakegu ohean, galtzontzilotan, izarak hankazpian eta bereak diruditen galtza eta t-shirta lurrean barreiatuak. Lehen begiratuan nerabe baten logela dela pentsa genezake, oheburuko errealeko posterrak eta gau-mahaiko PsPak salatzen dutenez; haatik oker egon gaitezke, PsParen alboan Lucky pakete bat, erretzeko papera eta txina bat ikus dezakegulako. Hala nola, norbaitek pentsa lezake berdin-berdin heldu zein nerabe batenak izan daitezkeela, baina hara non, nerabea balitz txina eta papera ezkutatzeko zuhurtzia izango zukeen.

Bat-batean errezela baztertu du norbaitek, emakume batek, adindun emakume batek, parez pare dugu haren bisaia, baina ez gaitu ikusten; ezin gaitu ikusi. Buelta erdi eman, ohera hurreratu eta astinaldi ederrak eman dizkio gizonari. Soilik bi pertsonak maneia dezakete gizon bat horrela, bere emazteak edo bere amak. Kasu honetan zalantzarik ez dugu, bere ama da.

—Jaiki hadi, motel! Larre telefonoan duk eta. —Emakumeak erabili duen tonuarekin auzoko guztiak telefono bila arituko dira.

—Umm? —Denak, gure gizona izan ezik.

Bigarren astinaldian gizona ohetik altxa eta gure begiradapetik ihes egin du.

Akelino Elosua Zubimendi (Zumaia 1913)

- Bai, bai. Gerra bazetorren, ikusten zan, ikusten zan. Ezin zala bizi ya ikusten zan.
- Eta etorri zan.
- Bai, sartu zan, bai, Tito.
- Eta zelan enteratu ziñan gerra sartu zala?
- Ez naiz gogoratzen nola enteratu giñan, baiña enteratu bakarrik ez. Behalaxe jun ta aiuntamientuan jabe in giñan.
- Republikanuak?
- Bai, republikanuak. Bai, bai. Nazionalistak horrela zeuden ba, ze aldeta jokatu eziñik...
- Bai, dudan.
- Ta gu jarri in giñan aiuntamientuan. Detenitu´re in genduzen zea danak, karlista danak. Hamen, hamen, hamen nekan zeauta...apuntauta. Hogeita hamaika.
- Hogeita hamaika?
- Hogeita hamaika detenitu ginduzen. Ta aiuntamientoko goiko saloian eon zian preso ta zeak etortzen zian, anarkistak, billa, zeatu nahidxan. Ta haidxei frente eman ta. Gogor hartzen genduzen!
- Eta karlistak orduan salon de plenosen?
- Karlisten zea, hasi zian, ba, hoidxek´e ibiltzen pistolakin ta entrenamentuan-ta´re, ya jakiten gendun gu zein. Apuntau gendun, ta detenitu genduzen.
- Hildakorik eta izan zan?
- Ez!
- Zumaian?
- Ez, Zumaidxan ez. Bueno, hil zuen bat, baiña guk alde in ta gero-ee, ya ebakuazidxua in da geo-o. Paolen billatu zuen baten bat hilda.

Bitorianoren txokoa. Hala jartzen du bi gizonak eserita dauden mahaian. Tabernan dagoen mahai bakarrean. Gizonezkoetako bat gaur goizean ezagutu dugun bera da, bestea Larre delakoa izango da. Ibook bat dute mahai gainean, bi kafe kikarei konpainia egiten. Ibooka tolestu eta Larre delakoari begira jarri da gaur goizeko gizona. Elkarri begira mutu dira. Isilunea baliatuz, txina atera eta txirri bat prestatzeari ekin dio goizeko gizonak. Txina sutan bigundu, txikitu, tabakoarekin nahasi, paperean bildu eta ahoan sartu du. Txiskeroarekin sutu, zupada sakon bat eman eta lehen ke bufadarekin batera isilunea hautsi du.

—Ze iruditzen zaik, Larre? —Arrazoi genuen, Larre da beste gizona.

—Gure lana fini dela, Txatua. Orain *Ahotsak.com*-en zintzilikatu eta kito.— Hara, gure lagunaren izena ere ikasi dugu, edo ezizena, behintzat.

Beste zupada bat emanez aurpegi zorrotzez aztertzen du laguna, zerbait bururatu zaiola dirudi, baina ezer esan baino lehen Larrek asmatuko ote duen aztertzen dagoela dirudi. Birrikak hustu ahala, Bitorianoren txokoa ke lanbroa hedatzen hasi da.

—Utzi ezak porro puta hori eta esan itzak esan beharrekoak, ostia! — Aspaldiko lagunak direnik ezin uka.

Iribarre maltzur bat nabari dezakegu Txatuaren bisaian. Beste zupada bat eman ez zirikatzeko gogoia handitzen doakio.

—Ez al zaik iruditzen Akelino honen ahotan Baleikerako gaia aurki genezakeela? —Burutazioa argitzen hasi da Txatua.

—Baina zer diok, gure lana Zumaiako hizkera grabatu eta gordetzea huen. Hori egin diagu eta kito.

—Hori egin diagu eta kito. Hara bestea. Hi kazetaria al haiz? Ez al dik hire kazetari senak Paoleko hildako horren haritik tiratzea eskatzen?

—Hi zoratua hago, ba al dakik ze lan suposatuko lukeen gerra garaiko kontuak orain aztertzen hasteak?

Hitz egiten jarraitu aurretik enegarren zupada eman dio txirriari.

—Eskerrak nirea den alperraren fama. Gauza erraza duk. —Ideia plazaratu aurretik Bitorianoren txokoaz gain taberna lanbropean uzteko lanean, bestelako bufada bat bota du, suabe-suabe gainera, zerbait artistikoa egiten dabilen sineskerarekin— Esan bezala gauza erraza duk. Udaletxeko artxibategira joan, garai hartako dokumentuak eskatu, aztertu eta lortzen dugunarekin zenbaki monografiko bat presta genezake.

—Eta hori guztia zer pentsatzen duk, goiz bakarrean egitea? —Larreri ez zaio, ez, ideia askorik gustatzen.

—Nik? —aurpegian kabitu ere ez zaio egiten irribarrea Txatuari—. Nik ez, hik egingo duk. Azken finean hi haiz Baleikeko liberatu bakarra. —Azken zupada eman eta lurrera bota du txirriaren mutxikina.

Zumaiako udaletxea. Dorretxe bati itsatsitako eraikina. Eraikinean bulegoak eta dorretxean artxibategia. Eta hara non, sarrerako atarian Larre ikusten dugun besapean ibooka duela. Ez dakigu Akelinoren testigantzak sortutako jakin-minagatik den, edo Txatuak kazetari batek behar lukeen senaren aipamen hutsagatik azaldu den. Nolanahi ere, bera da atarian dagoena, eta ez Txatua.

Zuzenean abiatu da sarreratik barrena, harrera mahaiko emakumea agurtu eta bigarren solairura daramaten eskaileretan gora. Nabari da ez dela udaletxean dabilen lehen aldia, zuzenean artxibategira ematen duen ate aurrean paratu baita. Berez baimendutako pertsonak soilik sar daitezke bertan, ateko afixak hala dio behintzat, baina bera barruraino sartu da. Agian baimena izango du, nork daki. Agian kulturako zinegotzia koadrilakoa izateak badu zerikusia, auskalo. Kontua da barruan dela.

Behin barrura sartuta, artxibategiaren ordez andaluziar patio batean gaudela dirudi; desberdintasuna hemen lorerik ez dela, ez eta zeru urdinik, hemen egurra eta papera dira nagusi.

Artxibategiak hiru solairu ditu, solairu bakoitzean lau horma, horma bakoitzean hamaika apal eta apal bakoitzean milaka artxibo, eta guztiaren erdian beheko solairutik sabairainoko hutsunea. Oteizari gorazarre ote den ez dakigu, baina jakin badakigu makina bat tximinia izango dela bazterretan halako tirorik ez duena. Noizbait artxibategiak su hartuz gero, artxiboak ez, alde zahar osoa erreko litzateke.

Bigarren solairuko hainbat apal aztertu ondoren, zeren bila dabilen jakin ez arren, hiru artxibo hartzea erabaki du Larrek. Lehenengoa eta handiena

kutxa gorri bat da, non *Alkatearen eskutitzak 1936-37-38* irakur dezakegun; beste biak, berriz, pasta gogorreko kaierak dira; batean *Udaleko sarrerak 1936* jartzen du, eta bestean *Udaleko irteerak 1936*.

Artxibategitik irten eta aldameneko gela batean sartu da. Lehenik bi kaierak aztertzeari ekin dio, baina berehala baztertu ditu. Kaiera horietan bere luma pausatu zuen idazkariak medikua behar luke gutxienez, eskuz idatziak daude eta ez da amaren semerik haiek ulertuko dituenik. Etsi gabe kutxa gorrian jarri du arreta. Mantso-mantso ireki eta bere pozerako makinaz idatzitako ehunka orriz betea dago. Ibooka ireki, giharrak luzatu eta orriak banan-banan aztertzeari ekin dio.

Atzoko zein gaurko mundua izar beraren inguruan dabil biraka. Eta ez, ez da eguzkia dirua baizik. Kontribuzioak gora kontribuzioak bera, isunak hemendik isunak handik, dirua nondik joango dirua nondik etorriko. Aztertutako orri gehienek dirua dute mintzagai, baina tarteka-marteka azaldu zaizkio zenbait bitxikeria. Hara non herriko baserritar bati berrogeita hamar pezetako isuna jarri zioten bi mila litro sagardo ezkutuan edukitzeagatik. Ez bat eta ez bi, bi mila litro! Edo soldaduskara deitu zuten emakumearena, Ascension izenaren ordezkari bezala azaltzen zelako. Baina tupustean izoztuta gelditu da Larre. Eskuartean duen orriari ezin dio begirik kendu. Ingurura begiratzen du inor ez dagoela ziurtatzeko. Gu bertan gara, baina ezin gaitu ikusi. Mahai gainean orria utzi eta lbookean transkribatzeari ekin dio.

*INSPECCION DE POLICIA URBANA DE ZUMAYA*

*¡¡ARRIBA Y VIVA ESPAÑA!!*

*El día 6 del mes y año corriente, y sobre las 8 y media de la noche, en la sidrería que sita en la calle puerto, el vecino de esta villa, D. Martín Alberdi, Chatua, tuvo alguna discusión con algunos que estaban en la misma, y de pronto empezó a dar gritos de Viva Navarra y a blasfemar el Santo Nombre de Dios, y en vista de ello la que estaba vendiendo la sidra le ordenó que saliera del establecimiento a la calle, no por dar vivas a Navarra sino por blasfemar, y a poco rato cuando estaba cerrando la puerta del mencionado establecimiento llegó hasta la puerta el mencionado Chatua y después de decir que había que hacer justicia y demás, dio varias voces en la vía pública de viva los rojos por ajusticiar al ilustre vecino de esta villa D. Valentín Larreategui que fue asesinado cobardemente por las hordas comunistas causándole la muerte.*

*Este individuo es de antecedentes derechistas y al parecer adicto al Glorioso Movimiento Nacional, pero cuando está bebido no es hombre.*

*Lo que tengo el honor de poner en conocimiento de Ud. a los efectos que estime conveniente.*

*Dios guarde a Ud. muchos años.*

*Zumaya a 8 de marzo de 1938.*

*El año triunfal!*

*El cabo del cuerpo municipal.*

Errezelak uzten gaituen arte, oheburuko errealeko posterraz gain, idazmahai bat ikusten dugu gelaren bazterrean. Bertan Larre eta Txatua ikusten ditugu eserita. Bi biak mutu daude ibookaren aurrean. Ez dakite zer esan elkarri, ez eta nola jokatu. Beno Txatuak bai, poltsikotik txina atera eta txirri bat prestatzeari ekin dio. Larrek ez dio begirik kentzen. Zeremonia osoz pauso guztiak eginda, txirria ahoan sartzera zihoala eskutik kendu dio Larrek. Txirria ahoan sartu, sutu, bufada sakon bat eman eta isilunea hautsi du. Eztulka hasi baita. Ondoren txirria Txatuari pasa eta honako galdera luzatu dio.

—Eta orain zer?